**UNED idiomas**
**IDIOMA: Euskera (A1)**

# Prueba de comprensión lectora

| INSTRUCCIONES Y PUNTUACIÓN |
|---|
| La prueba de comprensión lectora consta de 3 ejercicios. En total suman 20 ítems. Debe responder cada uno de los ejercicios en las tablas habilitadas para ello al final de cada ejercicio.<br>Cada acierto puntuará +0.5 y cada fallo restará -0.16. Aquellas respuestas que no se respondan no penalizarán.<br>Recuerde entregar todas las hojas al tribunal.<br>Duración: 70 minutos. |

## Ejercicio 1

**Completa los huecos con la opción correcta. Rellena la tabla con la letra correspondiente.**

Urtero gauza bera gertatzen zaigu. (1)________aldaketa heltzen denean, gauza bera esaten dugu: “Aurten ez dut ezer erosiko, aurreko urteko arroparekin nahikoa dut eta”. Baina, erakusleihoen aurretik pasatzen garenean, eta modelo berriak ikusten ditugunean, (2)_________egiten zaigu esandakoa.

Eta zer egiten dugu arropa (3)_________, berria erosten dugunean? Gehienetan, armairuan gordetzen dugu, hurrengo batean modan egongo dela pentsatuz. Horrela jarraitzen dugu,(4)__________ bete arte.

Zer egin dezakegu? Alde batetik, zerbait erostera joaten garenean, behar dugun ala ez ondo pentsatu. (5)________ da, baina erosten ditugun gauza gehienak ez dira beharragatik izaten. Bestetik, zerbait berria erosten dugunean, ondo (6)___________ armairua ea zerbait bota dezakegun.

Zer egin arropa zaharrarekin? Arropa zaharraren (7)__________ eraman. Edo trapu bihurtu. Bertan biltzen den arropa birziklatzeko erabiltzen da, edo jende behartsuari banatzeko.

| 1. | 2. | 3. | 4. |
|---|---|---|---|
| a) Hilabete<br>b) Aste<br>c) Urtaro | a) barkatu<br>b) ahaztu<br>c) luzatu | a) zikinarekin<br>b) zaharrarekin<br>c) itsusiarekin | a) armairua<br>b) labea<br>c) egongela |
| 5. | 6. | 7. | |
| a) Zaila<br>b) Beharrezkoa<br>c) Ezinbestekoa | a) begiratu<br>b) irakurri<br>c) igeri egin | a) gelara<br>b) arkatzera<br>c) ontzira | |

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |

# Ejercicio 2

**Lee el texto con atención y a continuación, responde a las preguntas. No olvides poner tus respuestas en la tabla de respuesta.**

Hotela ibaiaren ondoan dago. Etxe txikia da, gela gutxi ditu. Ebak eta Inaziok beti hartzen dute gela bera. Beti, hamar aldiz orain arte, ostegunero.

Eba euriari begira dago leiho irekiaren aurrean, biluzik. Euriak gogor jotzen du belarra, eta hots bustia sartzen da gelara. Ebaren iletik ere ur-tantak erortzen ari dira egur ilunaren gainera: beste eruri mota bat, beste soinu busti bat, beste garrasi isil bat.

Orezta (*peca*) bat dauka Ebak lepoan, orban (*marca*) marroi bat, arrosa baten formakoa.

- Etorri hona- eskatu dio Inaziok- , arrosa hori berriz usaindu nahi dut eta.

Esnatu da gizona. Siesta egin dute lehentxeago. Gaur elkarrekin bazkaldu dute, Inazio lanetik irten eta gero. Gaur berandu heldu da, hiru ordu laurden.

- Dei luze bat izan dut, irteteko orduan juxtu, barkatu.

  Eba aspertu da itxaroten. Beste minutu bat eta…Esan dio Inaziori:

- Ez dizut berriz itxarongo. Hauxe da lehen eta azken aldia.

Horregatik, gonbidatu du Inaziok Eba bazkaltzera, haserrea leuntzeko. Aurreko aldietan, zuzenean igo dira gelara eta unerik galdu gabe egun dute amodioa.

*Borrokalari argitsuak (Miren Agur Meabe)*

**1. Nolakoa da hotela?**

a) Gela gutxikoa baina nahiko handia.

b) Ibaitik urrun dago

c) Gela gutxikoa.

**2. Ohiko (*habituales*) bezeroak dira Eba eta Inazio?**

a) Ez, ostegun bakar batean egon dira.

b) Bai, baina ostegunero logela desberdina hartzen dute.

c) Hamar aldiz egon dira orain arte.

**3. Zer esan nahi du "Ebaren iletik ere ur-tantak erortzen ari dira" esaldiak?**

a) Izerditan dagoela kirola egin duelako.

b) Aurretik busti dela eta ilea bustita duela.

c) Negarrez dagoela.

**4. Hurrengo esaldietatik zein da GEZURRA (*falsa*)?**

a) Eba triste dago, barrutik mina sentitzen du.

b) Ebari larrosak oparitu dizkio Inaziok.

c) Ebak orezta dauka lepoan

**5. Noiz egin du lan Inaziok?**

a) Goizean.

b) Goizez eta arratsaldez.

c) Bazkaldu eta gero.

**6. Zergatik heldu da berandu Inazio?**

a) Goiz jaiki delako.

b) Nekatuta zegoelako.

c) Azken momentuan dei bat jaso duelako.

**7. Zergatik haserretu da Eba?**

a) Inazio aspertuta dagoelako.

b) Egun horretan amodioa egin ez dutelako.

c) Inazio berandu heldu delako.

**8. Zergatik bazkaldu dute elkarrekin Ebak eta Inaziok?**

a) Ebaren haserrea leuntzeko.

b) Menu leuna zegoelako.

c) Ebak Inazio gonbidatu duelako.

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |

# Ejercicio 3: Uso de la lengua

**Responde a las preguntas seleccionando una única respuesta. No olvides poner tus respuestas en la tabla de respuesta.**

1. Aintzanek lau seme-alaba ___________.

    a) ditu

    b) du

    c) da

2. - _______ daude giltzak, ama?

    - Betiko tokian

    a) Non

    b) Nondik

    c) Nora

3. Bere jatetxea beti dago beteta oso sukaldari ona ___________.

    a) da

    b) delako

    c) dira

4. Oso urduri dago eta ___________ esan dio.

    a) isiltzen

    b) isiltzeko

    c) isiltzea

5. uste dut oso trebeak _____________.

    a) garenik

    b) garela

    c) garelako

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |